

## ARRITXULO UDALEKUAK 2018

<b>6 TXANDA</b> <b>EKAINAK 25/UZTAILAK 1</b> <b>UZTAILAK 2/UZTAILAK 8</b> <b>UZTAILAK 9/UZTAILAK 15</b> <b>UZTAILAK 16/UZTAILAK 22</b> <b>UZTAILAK 23/UZTAILAK 29</b> <b>UZTAILAK 30/ ABUZTUAK 5</b>	<b>ARRITXULO</b> <b>ATERPEA:</b> <b>www.arrantxulo.org</b>	<b>Prezioa</b> <b>260€/haur</b>	<b>MATRIKULA EPEA</b> <b>MARTXOAK 5 – EKAINAK 8</b>
<b>SARRERA</b> <b>10:00etan Arritxulon</b> <b>IRTEERA</b> <b>12:00etan Arritxulon</b>	<b>NESKAK ETA MUTILAK</b> <b>LOGELA BERDINETAN</b>	<b>EUSKERAZ</b> <b>HITZ EGITEN</b> <b>DUGU</b>	<b>BEGIRALEAK</b> <b>URTEAN ZEHAR TALDEAK ELKARREKIN</b> <b>LAN EGITEN DU</b> <b>GERTUTASUNA PARTAIDEKIN GURE</b> <b>BALIOA DA</b>
<b>ADINAK</b> <b>7 - 12 URTE</b> <b>(LH 3,4,5,6 eta DBH1)</b>	<b>LO EGITEKO LEKUA</b> <b>BERAIEK AUKERATZEN</b> <b>DUTE</b>	<b>HELBURUA</b> <b>ONDO</b> <b>PASATZEA</b>	<b>ZALANTZAK</b> <b>udalekuakarrantxulo@gmail.com</b> <b>636994688/665110093</b>

Udalekuen egitarauan, gazteek esperientzia aberasgarria izatea beraientzat erakargarriak diren ekintzen bitartez helburu nagusia da.

ARRITXULO aterpetxean Oiartzungo Aiako Harria Parque Naturala ezagutu eta naturaz gozatuko dute.

Ez da pre-matrikulaziorik egongo. Matrikula egiterakoan, txanda aukeratu, parte hartzaileen datuak bete eta inskripzioa konfirmatzean ordainketa egin beharko da.

**UDALEKUEN FAKTURA:** beharrezkoa izanez gero, hurrengo e-postaren bitartez faktura eskatu daiteke: [udalekuakarrantxulo@gmail.com](mailto:udalekuakarrantxulo@gmail.com)

Txanda bukatu baino lehen, norbaitek udalekutik alde egin beharko balu, guraso edo tutorearekin batera izan beharko litzateke. Hau horrela ez balitz eta beste pertsona bat haurraren bila etorri ezker, aurretik idatziz tutorearen baimena jaso beharko genuke.

**DIETA BEREZIAK, ALERGIAK...etab:** Gure Aterpetxean etxeko janaria eta sanao prestatzen da eta dieta bereziak prestatzera ohituta gaude.

Hala ere, matrikula orrietan (behar izanez gero, orriaren atzeko aldea erabiliz) behar berezi hauen zehaztapen guztiak idaztea komeni da, guk aldeztu aurretik jakin dezagun eta janariak ondo prestatzeko.

\*Medikuaren preskripzioan agertzen diren botikak bakarrik administratuko dira umeei.

**MEDIKU ARRETA:** Gertatu litezkeen istripu edo gaixotasunekin, protokoloa jarraituko litzateke eta Oiartzun osasun zentrorra joango ginateke.

**BISITAK UDALEKUETAN:** Udalekuetan zehar debekatuta daude bisitak, dinamika mozten baitute.

**TELEFONO DEIAK:** Ez dira deiak baimenduak egongo. Dena den, udalekuan zehar, arazoren bat edo urgentziaren bat egonez gero, familia udalekuen antolatzaileekin kontaktuan jarri ahalko dira telefonoz, eta alderantziz.

**ARGAZKIAK:** Matrikulan, argazkiak atera eta hauen erabilpenerako baimena eskatzen dizuegu, udalekuen oroigarri polit bat izateko. Argazki guzti hauek posta elektronikoz bidaliko dizkizuegu eta Facebook-eko profilean jarriko ditugu.